

UNITATE DIDAKTIKOA: BELDUR BARIK: INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO NESKA-MUTILENTZAKO GIDA

Helburu nagusiak

- Neska-mutilek indarkeria sexistaren adierazleak, arrazoiak, eraginak eta ondorioak **aztertzea**.
- Neska-mutilek indarkeria sexista identifikatzeko eta ekiditzeko argibideak eta neurriak **ezagutzea**.
- Neska-mutilek indarkeria sexistari aurre egiteko irtenbide propioak **eztabaidatu eta gauzatzea**.

Helburu zehatzak

- Partehartzaileei eskura ematea indarkeria sexista **aztertzeko** elementuak.
- Neskengan indarkeriak sortzen duen **beldurrari buruzko hausnarketa sustatzea**, eta beldurraren garrantzia azpimarratzea, nesken askatasuna mugatzen baitu.
- Indarkeria bultzaten duten mutilentzako **ezinezko misioei** buruzko hausnarketa.
- Partehartzaileei eraso sexista prebenitzeko eta aurre egiteko tresnak eta **gakoak** ematea.
- Herrietan laguntzarako **baliabideak** bideratzea eraso sexistei erantzunak emateko.

Metodologia

Unitate honetan Beldur Barik izeneko gidan oinarritutako lan proposamena duzu, neska-mutilentzako indarkeria sexistaren aurkako gida. Hasierako ariketan, gida hedatzeko ideiak proposatuko dizkizugu; bigarrenean, gidaren edukiak lantzeko ideiak dituzu.

Lanari etekin handiagoa ateratzeko, gida irakurri eta ondo begiratu, edukia eta logika egoki ulertu arte.

Gidan zure herriko laguntza baliabideak dituzu. Gaia landu aurretik, begiratu informazioa, beharrezkoa bada, eguneratu eta hedatzeko materiala lortu banatzeko.



Gidak bost atal ditu. Komenigarria da bestelako materialetatik ateratzen duzun informazioa, atal horietan sartzea, informazioa emateaz gain, egoera aztertzeko eskema emateko neska-mutilei. Eskema hori erabilgarri izango duzu, baita ere, 2 Fitxako egoerak lantzen dituzunean. .

- **Gakoak**, indarkeria sexistaren egoerak eta sintomak identifikatzen lagunduko dizkizute. Egoera desberdinak dira, batzuk azkarrago antzematen dira; beste batzuk, ordea, zailagoak dira, normalizatutako jokamoldeak direlako, maitasunezko harremanean edo emakumeen zein gizonen "izaeran" "normaltzat" hartzen direnak.
- **Ideiak eta hausnarketak**, zehatzak eta laburrak indarkeria sexista edo matxista zer denari eta zerk sortzen duenari buruzkoak. Ideia horiek argi izan behar dituzu hausnarketak bideratzeko.
- **Argibideak** indarkeria antzemateko. Gehiago egon daitezke. Animatu batez ere, neskak, arlo horretan duten esperientzia konta dezaten.
- **Baliabideak**, erasoak prebenitzeko.
- **Aholkuak**, erasoaren aurrean nola jokatu jakiteko.